



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko urtarrilaren 15a

1. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, jakiteko nola eta zer irizpideren arabera egingen den etorkizunean Nafarroako Gobernuaren etxebizitza arloko politika. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen dira helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako plaza kopurua handi dezaten. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Azkoiengo J.B. Irurzun ikastetxearen eraikinarri buruzko azterlan sakona egin dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da emakumeen genitalen ebaketei aurre hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da behar adinako kontusail bat ziurta dezan 2009rako, Nafarroako euskarazko hedabideek beren egitekoa eta etorkizuna ziurtatu ahal izate aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoiei buruzko azterlan zehatza egin ditzan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da osasun arazo larriak eta ezgaitzaileak dituzten presoen askatzea bultzatzea dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako egungo historiografiaren joeraniztasunaren isla izan daitezen 2012ko batzorde antolatzailean aurreikusitako 5 pertsona prestigiodunak. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak onetsia (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat sinatzean Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako herritarrek ETBko kanalak sintonizatu ahal izateko. Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuako Eledunaren Batzordeak bazter utzia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, Israeleko estatuari Gazako lurraldearen aurkako eraso berehala gerarazteko eskatzen eta exijitzen dioten europar erakundearen adierazpenekin bat egiteko. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Katalaingo ermita zaharberritzeko obrei buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (13. or.).
- Galdera, Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duen Legearen betetzeari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Gendulainen etxebizitzak eraikitzeko sustatzaileentzako balizko abalari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako funtsezko erakargarri turistikoari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxak enpresen eta familien finantzaketa ahalbidetze eta azkartze aldera Nafarroako Gobernuak egindako jarduketari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, elikadura-jokabidearen nahasteei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (17. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdiak, hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontratazioarako (18. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2009rako (25. or.).
- Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2009rako (25. or.).
- Comptos Ganberako lehendakariaren Ebazpena, 2008ko abenduaren 18koa, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategietako batzuk aldatu eta fitxategi berri batzuk sortzen dituen (26. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorren 2009. urterako ordutegi ofiziala (28. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, jakiteko nola eta zer irizpideren arabera egingen den etorkizunean Nafarroako Gobernuaren etxebizitza arloko politika.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, jakiteko nola eta zer irizpideren arabera egingen den etorkizunean Nafarroako Gobernuaren etxebizitza arloko politika.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Osoko Bilkurarako ondoko jabeldura aurkeztu du:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazpen batzuk egin ditu eta iragarri du funtsezko aldaketak egingen direla Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean eta 43/1988 Foru Dekretuan.

Arau horrek ezartzen duenez, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko jarduera eginkizun publikoa da, bere baitan hartzen dituen plangintzatik hasita lurzoruaren okupazioaren eta erabileraren zuzendaritza eta kontroleraino.

Lehendakariaren adierazpenetatik ondorioztatzen da sustatzaileen esku utziko dela lurraldearen antolamendua, bereziki lursailen eraikigarritasuna.

Hori dela eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, jakiteko nola eta zer irizpideren arabera gauzatuko den etorkizunean Nafarroako Gobernuaren etxebizitza arloko politika.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen dira helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako plaza kopurua handi dezaten.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen baitira helduen laguntzarik ez duten haur etorkinentzako plaza kopurua handi dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernu Eledunaren Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Azken urteotan, ehundaka mila pertsona, munduko hainbat tokitatik etorriak, Espainian geratu dira bizitzen, hemen etorkizuna eraikitzeko asmoz. Egoera hau ez da iragankorra: badirudi mugimendu hori hurrengo urteotan ere gertatuko dela.

Pertsona horietako asko lagundu gabeko adingabeak dira, eta administrazioaren babesa behar dute. Hain zuzen, urte honetan, Estatuko Gobernuaren datuen arabera, 1.600 inguru dira Kanarrietan daudenak; hori dela eta, beharrezkoa da autonomia erkidego guztiek elkartasunez laguntzea adingabe horiek hartzen.

Horrekin lotuta, esan behar da administrazio zentralaren eta foru administrazioaren arteko lankidetzaren abian dela jada; izan ere, 2007an berritu baita Lan eta Immigrazio Ministerioaren eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren arteko hitzarmena, Kanarietako Autonomia Erkidegoko giza baliabideak eta baliabide materialak

kolapsatuta daudela eta, langundu gabeko hamar adingabe artatze aldera.

Nafarroako arartekoak, gai horri buruz urriaren 16an argitaratutako txostenean eta hari buruz informatzeko azaroaren 18an egin zuen agerraldian, aipatu zuen, besteak beste, Nafarroak adingabe kopuru handiagoa har zezakeela, eta, halaber, gomendatu zuen hala izatekotan, haienezko egoitzak txikiak izan zitezten, gaur egungo egoitzako giro eta filosofia bera mantentze aldera. Horrekin lotuta, arartekoak egiaztatu du, halaber, ez dagoela emantzipaziorako edota heldutasunera igarotzeko programarik.

Bestalde, beharrezkoa da erakundeek bidezkoak diren proposamenak egitea, adingabe horien hezkuntza- eta lan-ibilbidea ahalik eta iraunkorrena eta eraginkorrena izan dadin, eta horretarako haien egonaldia eten ezin daitekeen prozesutzat hartu behar da. Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela ematen diren prestazioak eta legezko egoerak lan hori egiteko egokienak izan behar dutela; hori dela eta, programak sendotu egin behar dira.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Estatuko Gobernu eta Nafarroako Gobernu premiatzen ditu Lan eta Immigrazio Ministerioaren eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuaren arteko lankidetzaren esparruan gauzatutako pertsona etorkinak hartzeko eta gizarteratzeko jarduerak egiteko lankidetzaren hitzarmenaren luzapenean handitu dadin Nafarroak hartzen dituen helduen laguntzarik gabeko haur etorkinentzako plaza kopurua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du abian jar ditzan helduen laguntzarik gabeko adingabeentzako zentroak. Zentro horiek, tamainari dagokionez, errespetatuko dute Deierriko etxebizitza-eredua.

3. Nafarroako Gobernuak eskatzen dio Estatuko Gobernuari beste bi urterako berritu ditzan Nafarroan MENA programaren barruan dauden adingabeen lan eta egoitza baimenak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean aurkez dezan legebiltzarrean helduen laguntzarik gabeko adingabeei hezkuntza eta lan arloko laguntza emateko plan bat, emantzipaziorako edota heldutasunera igartzeko neurriak edo programak jaso eta gaur egun dauden programak finkatuko dituen.

5. Nafarroako Gobernuak eskatzen dio Estatu-ko Gobernuari gaur egun ematen duen kopurua –80 euro adingabe eta eguneko– handitu dezala.

Iruñean, 2008ko abenduaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Azkoiengo J.B. Irurzun ikastetxearen eraikinari buruzko azterlan sakona egin dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Azkoiengo J.B. Irurzun ikastetxearen eraikinari buruzko azterlan sakona egin dezan

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Hezkuntza Departamentuak aspalditik du Azkoiengo J. B. Irurzun ikastetxeko egoeraren berri. Denbora aurrera joan ahala, ikastetxe horren egoerak ez du hobera egin; aldiz, okertu egin da. Esaten bada ere eraikinaren egituraren egonkortasuna ez dagoela arriskuan, bestelako faktore

batzuk hartu behar dira kontuan, hala nola eraikuntza elementuen erortze partzialak. Hori arriskutsua izan daiteke ikastetxean dauden pertsonentzat, bereziki batzuetan barruko atarira landareen zainketari eta bestelakoei buruzko eskola-lanak egitera irteten diren ikasleentzat.

Hori dela eta, eta kontuan hartuta eraikuntza-akatsen buruzko txostenaren ondorioak eta gomendioak, bertan esaten baita beharrezkoa dela ikastetxe horretako arazoa zaintzea eta kontrolatzea, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Lurzoruaren gaur egungo egoerari buruzko azterketa egin dezan.

2. Emandako eraikinaren zimenduen ikuska-pen zehatza egin dezan, horien topologia eta tamaina aztertzeko.

3. Zimenduen portaeraren azterketa analitikoak egin dezan.

4. Lurzorua sendotu dezan, egiaztatzen bada akatsen bat egon dela zimenduak diseinatzerakoan edo horien neurriak ezartzerakoan.

5. Egin beharreko jarduerak diseina ditzan eta horien balorazio ekonomikoa egin dezan, eta, kasua bada, jarduera horiek gauza ditzan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 16an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Legeei dagokionez, bistan da klitoriaren ablatzioa erabat onartezina dela gure sistema juridikoan eta gure gizarte-sisteman, gure kulturaren eta balio-sistemaren oinarri diren printzipioen aurkakoa baita. Hori dela eta, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira praktika hori egin ez dadin.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, emakumeen genitalen ebaketatzat hartzen dira: "kanpoko aparatu genitalaren ebaketa partziala edo osoa, edo emakumearen organo genitalak beste-lako lesioak dakartzan prozedura kirurgiko oro, arrazoi kultural edo terapeutikoengatik egiten dena."

Praktika hori giza duintasunaren aurkakoa da erabat, zehazki emakumeen duintasunaren aurkakoa. Ekintza horrek bizitza osoa hipotekatu eta mugatzen du. Horrekin lotuta, eragiketa horiek gutxieneko baldintza higienikoak kontuan hartu gabe egiten dira, esterilizatu gabeko xaflekin edo bestelako tresna ebakitzailerekin, anestesiarik gabe edo soilik mina arintzeko pilulak erabilia.

Ebaketak emakumeen bizitza ere arriskuan jartzen duten ondorio fisiko larriak ditu; izan ere, ebaketa egin osteko ondorio berehalakoak hauek izan daitezke: odoljarioak, infekzio kronikoak sarri izatea, pixa egiteko zailtasunak, antzutasuna, mina sexu harremanak izaterakoan, eta, bere era guztietan, esperientzia traumatikoa da pairatzen duten neskak eta emakumeentzat.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeen genitalen ebaketei aurrea hartu eta errotik desagerrarazteko neurri berariazkoak ziurta ditzan. Bereziki garrantzitsuak dira praktika horiek ohikoak diren herrialdeetako emakumeentzat bizi baldintza egokiak sortzea helburu duten elkartasun- eta lankidetzak-ekintzak, bai eta praktika horiek gure herrialdean dituzten ondorio penalei buruzko informazio nahikoa ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du familien arteko bitartekaritza komunitarioa susta dezan, genitalen ebaketa arriskurik izanez gero. Kasu horietan ahalegina egin behar da negoziazioan pertsona adituek parte har dezaten, bai eta praktika horien eragina jasaten duten komunitateetako pertsonena ere; halaber, ziurtatu behar da oinarritzko laguntzaren arloko eragile sozialen jarduna.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ebakuntzak egiteko osasun bitartekoak izan ditzan osasun sistema publikoan aurre egiteko ebaketaren ondorioak lehengoratu nahi dituzten emakumeen eskaerari, bai eta laguntza psikologikoa, familiarra eta komunitarioa emateko bitartekoak ere. Adingabeen osasuna arriskuan dagoen kasuetan, osasun arloko langileek eskura izan behar dituzte ebakuntza egiteko beharrezkoak diren bitartekoak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez dezan ebaketa genitala jasan duten emakumeei laguntza medikoa, soziala eta psikologikoa emateko jarduera protokolo bat, kontuan hartuta osasun-, hezkuntza- eta gizarte-esparrua, baita esparru judiziala ere.

Iruñean, 2008ko abenduaren 18an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar adinako kontusail bat ziurta dezan 2009rako, Nafarroako euskarazko hedabideek beren egitekoa eta etorkizuna ziurtatu ahal izate aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita behar adinako kontusail bat ziurta dezan 2009rako, Nafarroako euskarazko hedabideek beren egitekoa eta etorkizuna ziurtatu ahal izate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak:

Euskarari buruzko Legeko 27. artikulua ondo-ko dio: "Administrazio Publikoek bultzatuko dute euskararen mailaz mailako presentzia komunikabide sozial publiko eta pribatuetan. Horretarako, eta komunikabideek euskara gero eta gehiago eta ohiko moduan erabil dezaten, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu."

Hori da legeak dioena, baina errealitatea oso bestelakoa da. 1992tik aitzina ez da aurrekontu-hazkuntzarik izan euskarari dagokionez. Eta ez hori bakarrik: heldu den urteko aurrekontuetan, Euskarabideak, euskara sustatzeko sortu zen erakundeak, % 39,4 murriztuko du bere aurrekontua.

Aurtengo aurrekontuetan, hedabideetan euskara sustatzeko laguntza 310.000 eurokoa zen,

baina krisiaren aitzakian, Gobernuak ez zuen deialdia egin eta kontusail osoa blokeatu zuen. Azkenean, hasierako 310.000 eurotik 240.000 eurora jaitsi da oraintsu egin duen deialdian.

Deialdia berandu eta behar baino diru gutxiago jarrita egin da, eta horrek itotze ekonomikoa ekarri du hainbatetan, eta, hartara, kasu askotan, bizi-rauteko, maileguak eskatu behar izan dira, bai eta, zenbaitetan, langileak kaleratu ere.

Kezka gero eta handiagoa da; izan ere, 2009ko aurrekontua 9.567 eurokoa da; alegia, 2008koa baino % 96 gutxiago, eta horrek behin betiko itoko lituzke euskarazko hedabideak.

Egoera hori delarik irakurri ahal izan ditugu Europako Kontseiluaren bigarren txostena eta gomendio berriak. Txosten horretan salatzen da Nafarroako Gobernuak ez duela betetzen Eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunean jasotakoa. Europako Kontseiluak euskarazko hedabideentzako laguntzak kritikatzeko dituzte batez ere. 2005ean, lehendabiziko txostenean, UPNko gobernuari gomendatu zion hedabideetan euskara susta zezan. Orain, egoerak problematikoa izaten jarraitzen duela uste du. Txostenak dioenez, Nafarroako Gobernuak hedabideei laguntzen die, baina ez da bermatzen euskarazko hedabideek laguntzak jasoko dituztela. Europako Kontseilua kezkatuta dago Nafarroa Digitalizatzeko Planak euskaraz emititzen dituzten bi telebista baztertzen dituelako.

Europako Kontseiluak 2007an egin zuen azterlana. Orduan ez zegoen ekonomia-murrizketarik. Zer "gomendio" eginen lioke Europako Kontseiluak gaur egun Nafarroako Gobernuari?

Egoera al bait arinen konpondu beharra dago, eta Nafarroako Gobernuak al bait arinen bete behar du Euskarari buruzko Legeak agindutakoa eta Europako Kontseiluak "gomendatutakoa".

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Behar adinako kontusail bat ziurta dezan 2009rako, Nafarroako euskarazko hedabideek beren egitekoa eta etorkizuna ziurtatu ahal izate

aldera, bai eta aurreko deialdietan bazterturik gelditu direnentzat ere.

2. Hedabide horietan publizitate instituzionala jar dezan.

3. Hedabide horien egoera egonkortzeko neurri zehatzak har daitezten, horien araubide eta finan-

tzaketa ekonomikoa ziurtatuko duen hitzarmena sinatuta.

Iruñean, 2008ko abenduaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen da batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi- ei buruzko azterlan zehatza egin ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen baita batzorde bat sor dezan, giza baliabideen premiei buruzko azterlan bat eta itxaron zerrenden atzean dauden sakoneko arrazoi-
ei buruzko azterlan zehatza egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Osasun arloko gastua baloratzerakoan, hiru parametro hartu behar dira kontuan:

1.- Zenbat gastatzen den.

2.- Zertan gastatzen den.

3.- Nola gastatzen den.

Hori dela eta, ohituta gaude baloratzen soilik zenbat gastatzen den osasun arloan, eta hala transmititzen diogu iritzi publikoari, eta hori funtsezko akatsa da; izan ere, ez dugu osasun arloa bere osotasunean aztertzen, ez da ez plangintzarik ez diru horren kudeaketa egokirik egiten, eta horrek dirua xahutzea ekar dezake. Horren adibide argia dugu itxaron zerrendei buruzko legea; izan ere, lege bat onetsi zen itxaron zerrendak murrizte aldera, eta egiten ari garen bakarra da kontusail horretan dirua sartzea eta sistemari ondorio kaltegarriak eragitea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du erabaki proposamen hau onetsi eta sei hilabeteko epean batzorde bat osa dezan, giza baliabideei eta baliabide teknikoei buruzko beharrianak aztertze eta, halaber, itxaron zerrenden atzean dauden arrazoi-
ei zehatza egiteko, hala nola giza baliabideen eskasia osasun arloko arreta-mailetan, baliabide tekniko-
en falta edota baliabide horien errendimendu-beharrak, ohiko erabilera-orduei dagokienez.

Iruñean, 2008ko abenduaren 23an

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da osasun arazo larriak eta ezgaitzaileak dituzten presoek askatzea bultzatzea.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Barne Ministerioa premiatzen baita osasun arazo larriak eta ezgaitzaileak dituzten presoek askatzea bultzatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezian eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuaren Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezian eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Parlamentu-talde honek behin eta berriz adierazi izan du espetxe politikak preso dauden pertsonen duintasuna errespetatu behar duela, gizaldeko irizpideei eutsi behar diela eta pertsona horien bergizarteratzea helburu izan behar duela.

Irizpide horiek beti indarrean egon behar duten arren, hala izan dadila exijitzea bereziki beharrezkoa da gaixotasun larriak dituzten pertsonen buruz ari garelarik.

Izan ere, egun espetxeetan izan badira gaixotasun larriak dituzten presoak, horietako batzuk

nafarrak. Espetxe politikaren gaineko gizaldeko ikuspegi batetik egoera horiek ezin dira onartu.

Hori dela eta, honako mozio hau aurkeztu dugu Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezian eztabaidatu eta, hala badagokio, onar dezan:

Mozioa

Gaixotasun larriak izaki espetxeratuta dauden pertsonen egoeraren aitzinean, Nafarroako Parlamentuak:

1. Barne Ministerioa, zehazki haren Espetxe Zuzendaritza Nagusia, premiatzen du osasun arazo larriak eta ezgaitzaileak dituzten presoek askatzea bultzatzea, espetxeratuta egoteak haren osasuna arriskuan jartzen duelarik. Horretarako, Zigor Kodearen 92. artikuluan eta Espetxe Araudiaren 104. artikuluan ezarrita dagoenaren gaineko interpretazio-irizpide zabala eginez.

2. Horren karitik, pertsona horien berehalako askatzea exijitzen du ikuspuntu osasuneko, psikologiko eta afektibo batetik behar duten arreta jaso ahal izan dezaten.

3. Eskakizun hori bete bitartean, eskatzen du senitartekoak ospitaleetan sartzea ahalbide dezala, une larri horietan lagundu ahal izan diezaieten.

4. Eskakizun hori bete bitartean, eskatzen du konfiantzazko medikuak espetxeetan sartzea ahalbide dezala.

5. Larriki gaixorik dauden preso nafarrei ebakuntza egin behar zaielarik, eskatzen du ebakuntza Nafarroako ospitaleetan egin ahal izazaietela.

6. Aipatu arazoak dituzten presoek askatzea bultzatuko duen politika sustatzeko borondatea berretsi egiten du eta gizarte eta osasun arloetan babes zerbitzu egokiak eskaintzeko konpromisoa bere gain hartzen du.

Iruñean, 2008ko abenduaren 23an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2008ko abenduaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere egin dezan erakundeek, instituzioek eta erakundeek Europako Kontseiluari egindako eskaria, Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko

1.- Nafarroako Parlamentuak, azaldutako arrazoiengatik, bere babesagertzen dio Europako Kontseiluak Bide Zeltiberiarra Europako Kultura Ibilbide deklaratzeko ekimenari.

2.- Nafarroako Parlamentuak, antzinako lurralde zeltiberiarrekin lotzen gaituzten arrazoi historiko, kultural eta auzotasunezkoak direla eta, Nafarroako Gobernua premiatzen du ekimen horrekin bat egin dezan eta harekiko babes esplizitua ager dezan.

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako egungo historiografiaren joera-aniztasunaren isla izan daitezen 2012ko batzorde antolatzailean aurreikusitako 5 pertsona prestigiodunak.

VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2008ko abenduaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako egungo historiografiaren joera-aniztasunaren isla izan daitezen 2012ko batzorde antolatzailean aurreikusitako 5 pertsona prestigiodunak". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko azaroaren 14ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako egungo historiografiaren joera-aniztasunaren isla izan daitezen 2012ko batzorde antolatzailean aurreikusitako 5 pertsona prestigiodunak

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako egungo historiografiaren joera-aniztasunaren isla izan daitezen batzorde antolatzailean aurreikusitako 5 pertsona prestigiodunak.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetz hitzarmen bat sina dezan Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako herritarrek ETBko kanalak sintonizatu ahal izateko.

ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA GOBERNUKO ELEDUNAREN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetz hitzarmen bat sina dezan Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako herritarrek ETBko kanalak sintonizatu ahal izateko".

Legebiltzarreko Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordeak,

2008ko abenduaren 16an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko urriaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala, Israeleko estatuari Gazako lurraldearen aurkako eraso berehala gerarazteko eskatzen eta exijitzen dioten europar erakundeen adierazpenekin bat egitekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

Nafarroako Parlamentuak bat egiten du europar erakundeen adierazpenekin, zeinek Israeleko

estatuari eskatu eta exijitzen baitiote Gazako lurraldearen aurkako eraso berehala gerarazteko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Katalaingo ermita zaharberritzeko obrei buruzkoa.*PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Katalaingo ermita zaharberritzeko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasaresek, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Katalaingo eliza erromanikoa dela eta, ondoko galdera hau egin nahi du Kultura eta Turismo-Vianako Printzea Erakundearen Departamentuko Kontseilariak dagokion batzordean ahoz erantzun diezaion:

– Zergatik daude geldirik Katalaingo eliza erromanikoa konpontzeko lanak?

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duen Legearen betetzeari buruzkoa.*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duen Legearen betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zioak

Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duen Legeko 5. artikulua ezartzen duenez, autonomia erkidegoek gizarteratze enpresen administrazio erregistroak sortu behar dituzte, zeinek berea, eta epeak ezartzen ditu –legea indarrean

sartu ondoko urtea, hain zuzen ere— enpresa horiek behin-behineko kalifikazioa jaso dezaten, baldin eta ezartzen ahal diren laguntzak jaso ahal izate aldera legeak zehazten dituen jarduerekin egiazki bat baldin badatoz enpresa horien jarduerak.

Kontuan izanik urtebeteko epe hori bete dela, eta garrantzitsua denez gizarteratze enpresek lege-euskarria izan dezaten bere jarduerarekin behar bezala jarraitzeko, ondoko galdera egin diogu kontseilariari, Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Ahozko galderaren testua

Gizarteratze Enpresen Araubidea Ezartzen duen Legeak ezartzen du enpresen administrazio erregistroak sortu behar direla, zeinek berea, enpresa horiek behin-behineko kalifikazioa jaso dezaten. Bete al du Nafarroako Gobernuak agindu hori?

Iruñean, 2008ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Gendulainen etxebizitzak eraikitzeko sustatzaileentzako balizko abalari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Gendulainen etxebizitzak eraikitzeko sustatzaileentzako balizko abalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lurralde-

aren Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Gendulainen etxebizitzak eraikitzeko sustatzaileentzako balizko abalari buruzko galdera

- Nafarroako Kutxak mailegu bat eman dio “Desarrollo sostenible” izena duen sustatzaile-erakitzaile talde bati, Galarko udal dermioan dauden Gendulaingo kondearen lursailak erosi eta bertan Nafarroako bigarren hiri handiena eraikitzeke. Egia al da Nafarroako Gobernuak mailegu horren abal-emaile dela?

- Zein da bermatutako kopurua?

- Zer ondorio ekonomiko izan ditzake(te) abal horrek (horiek) Nafarroako Gobernuarentzat bermea eman zaien sustatzaile-erakitzaileek ez badute ordaintzen?

- Egin al da txostenik abal horren edo horien arriskuei buruz?

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako funtsezko erakargarri turistikoiei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako funtsezko erakargarri turistikoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako funtsezko erakargarri turistikoiei buruzko galdera.

• Zenbat funtsezko erakargarri turistiko daude Nafarroan?

• Horietako zenbat eskatu dituzte partikularrek edota toki entitateek azken urte honetan?

Iruñean, 2008ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako Kutxak enpresen eta familien finantzaketa ahalbidetze eta azkartze aldera Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxak enpresen eta familien finantzaketa ahalbidetze eta azkartze aldera Nafarroako Gobernuak egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena

Ekonomia pairatzen ari den krisi egoera agerian geratzen ari da, lanpostuen galeraz gain, enpresek eta familiek beren ohiko jarduera finantzatzeko dituzten zailtasunengatik, entitate finantzarioek kreditua murriztu egin baitute.

Nafarroako Ekonomia eta Ogasun kontseilariak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren Batzorde Eragilearekin eginiko bilera baten ostean, eskatu die entitate finantzarioei enpresei ematen dieten kreditua handitu dezatela. Zehazki, esan du "sistema finantzarioak enpresei zein leihatilara joan behar duten esateko garaia da"; izan ere, enpresek une honetan duten "arazo larria" finantzaketa da, eta "arazo horri konponbidea eman behar zaio".

Adierazpen horien aurrean, eta kontuan hartuta Nafarroako Gobernuak duen eragina Nafarroa-

ko Kutzako gobernu organoetan, hau jakin nahi dut:

Galdera

Zer egin du Nafarroako Gobernuak sustatzeko

Nafarroako Kutzak enpresei eta familiei finantzaketa erraztu eta arindu diezaien?

Iruñean, 2008ko abenduaren 18an.

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, elikadura-jokabidearen nahasteei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, elikadura-jokabidearen nahasteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Elikadura-jokabidearen nahasteei buruzkoa.

1. Ba al da azterlanik elikadura-jokabidearen nahasteei Nafarroan duten eraginari buruz?

2. Zein da osasun arloko zuzkidura zehatza?

3. Abiatu al da gizarte eta hezkuntza arloko ekimenik elikadura-jokabidearen nahasteei aurrea hartzeko?

Iruñean, 2008ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 10. eremurako Ur Horniduraren Plan Zuzendariari buruzko honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– 10. eremua deituriko horretarako Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariak zer ezartzen du Irunberri eta Erromantzatua presio handiko urez hornitzeko?

– Ba al daki Nafarroako Gobernuak Irunberriko Udalak ez duela asmorik 10. eremua deituriko horretarako dagoen Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariarekin betetzeko?

– Ba al daki Nafarroako Gobernuak Irunberriko Udalak bere hornidura iturria mantentzeko asmoa duela?

– Zenbat diru erabili du Nafarroako Gobernuak orain arte, plan zuzendariari jarraikiz, Irunberri

urez hornitzeko Itoizko urtegia duen ur-emakidatik?

– Nafarroako Gobernuak diruz lagundu al du Erromantzatuko herrien presio handiko ur hornidurara?

– Dirudien moduan Irunberri ez badu betetzen Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendari eta aipatu haranak ez badu garatzerik ur falta dela-eta, aurreikusi al da nolako konpentsazioa eman?

– Zalantzarik gabe, Nafarroako Gobernuak badaki Irunberriko Udaleko ordezkariak agerraldia egin zutela 2004ko abenduaren 30ean Ebroko Konfederazio Hidrografikoan, eta, 2002-A-140 espedientearen bidez, eskatu zuela Nafarroako Ubidetik hornitutako udalerrien artean sartzea. Eskaera 2005eko otsailaren 25ean onetsi zen. Hori jakinda, zerk bultzatzen du Toki Administrazio-ko Departamentua, Irunberriko Udalarekin batera, Urei buruzko Legea urratzera?

– Badira 10. eremua deituriko horretako udalei ordaindu gabeko dirulaguntzak, Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariarekin lotuak. Zergatik ez dira ordaindu? Noiz eskatu dituzte udal desberdinek dirulaguntza horiek?

– Udalek ez dituzte jaso oraindik Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariaren loturiko obregatik dirulaguntzak. Toki Administrazio-ko Departamentuak aurreikusi al du 10. eremua deituriko horretako udalei kalteordainak ematea?

– Badira lanak, Presio Handiko Ur Horniduraren Plan Zuzendariarekin loturikoak, bertan sartu gabe daudenak. Zer obra dira horiek? Zer arrazoi-oren ondorioz ez dira sartu? Noiz eta zer erakundeek eskatu du obra horiek planean sartzea?

Iruñean, 2008ko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdiak, hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1.- Deialdiak onestea, hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako.

2.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Deialdiak, hautapoben eta merezimendu-balioespenaren bidez legelarien bi zerrenda osatzekoak, bata Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako eta bestea aldi baterako administrazio-kontrataziorako

I. Deialdia, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen prestakuntzarako zerrenda bat egitekoa

OINARRIAK

1. Helburua.

Deialdi honen xedea da izangaien zerrenda bat osatzea hautapoben bidez eta merezimenduen balioespenaren bidez, izangaiok legelari gisa prestatzeko eta hobetzeko, zerbitzuan beharra izaten denerako.

Aurreko horrek Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 17.2 artikulua garatzeko Erregelamendua izanen du araubide, zeina Mahaiaren 1994ko ekainaren 21eko Erabakiaz onetsi baitzen.

2. Izangaien baldintzak.

Izangaiek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Parlamentuko jarduneko funtzionarioa izatea eta bete nahi den lanpostuarena baino maila berekoa edo apalagokoa.

b) Zuzenbideko lizentziatu tituluaren jabe izatea.

Aurreko baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharrekoak direla ulertuko da, bai eta hautatzeko prozeduran zehar, izendapenaren unera arte.

3. Hautatze prozesua.

Probak 2009ko apirilean hasiko dira eta, betiere, erabaki honen bidez onetsitako bi deialdietako arau komunetan ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

4. Lanposturako deia eta zerrendaren indaraldia.

Lanposturako deia eginen da honako irizpide hauei jarraituz:

– Izangaiei dei eginen zaie beharrianak sortu ahala, zerrendako hurrenkera errespetatuz.

– Prestakuntza-aldian jardutearen ondorioz sortzen den zerbitzu berezietako egoerak, gehienez ere, hogeita lau hilabete iraunen du. Epe hori bete ahalko da aldi bakarrean edo aldi laburragoetan zatikaturik. Epe hori amaituta, beste hamabi hilabetez luzatzen ahalko da egoera, non eta prestakuntza aldian sartzeko beste funtzionarioirik ez dagoen.

– Zerbitzu berezietako aldi bakoitzaren iraupea laburragoa baldin bada ezarritako gehieneko epea baino, aldia amaitzean izangaia zerrendako lehen tokira pasako da, epe hori bete arte, salbu eta hurrenkera lehentasuna duen beste pertsona bat kasu berean dagoenean.

– Lanpostu bat prestakuntza aldiari betetzeko izendapenari uko egiten bazaio, edo prestakuntza aldiari jarduteari norbere gogoz uzten bazaio, gainerako izangaiei dei egiten zaie, kasuan kasuko zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraituz, eta prestakuntza aldiari uko egin dion langilea zerrenda horretako azken tokira pasako da.

II. Deialdia, aldi baterako administrazio-kontratazioarako zerrenda bat egitekoa

OINARRIAK

1. Helburua.

Deialdi honen xedea da hautaprobaren eta merezimendu-balioespenaren bidez osatzea legelari lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda bat, Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharrei aldi baterako erantzuna emateko, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileak aldi baterako kontratatzeari buruzko Erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

2. Parte-hartzaileen baldintzak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean izangaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea.
- b) Adinez nagusia izatea.
- c) Zuzenbideko lizentziatu tituluaren jabe izatea.
- d) Kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa edukitzea.
- e) Eginkizun publikoetan jarduteko desgaikuntzarik edo etenarazpenik ez izatea eta administrazio publiko bateko zerbitzutik bereizita ez izatea.

Baldintza horiek guztiak agiri bidez egiaztatu behar dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontratazioarako deia jasotzen duten izangaiek, adierazten zaien unean, kontratua formalizatu aurretik.

Aurreko baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharrekoak direla ulertuko da, eta bete behar dira, halaber, hautapen-prozeduran zehar eta kontratatzearen unean ere.

3. Hautatze prozesua.

Probak 2009ko apirilean hasiko dira eta, betiere, erabaki honen bidez onetsitako bi deialdietako arau komunean ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

4. Lanposturako deia eta zerrendaren indaraldia.

– Prozesua gainditu duten izangaiei deitu ahalgo zaie Nafarroako Parlamentuan sortzen diren beharren arabera, deialdi honetan ezarritako oinarriekin eta aplikatzekoak diren gainerako arauekin bat, eta aldi baterako administrazio kontratua egiten zaie, legelari gisa, A mailan; lanpostu horri dagozkion lansariak izanen dituzte, berez plantilla-kontratuaren langile finkoei dagozkienak izan ezik.

– Izangaiei deitzaerakoan, kontuan hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriko 3. idatz-zatiak ezarritakoa (Nafarroako Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzko zenbait alderdi arautzen dituen maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legeak emandako testuarekin betiere).

– Kontratatuari alta emanen zaie Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean eta bertan afiliatuko dira, beraz haiek ordaindu behar duten kasuan kasuko kuota eta PFEZaren atxikipenaren zenbatekoa.

– Aldi baterako kontratazioarako izangaien zerrendak sei urteko indaraldia izanen du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko aldi baterako langileak kontratatzeari buruzko Erregelamendurekin bat.

III. Bi deialdien arau komunak

1. Eskabideak.

1.1. Deialdiaren parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko erregistro orokorrean aurkeztu behar dira (Navas de Tolosa kalea, 1 - Iruña), edo Herri administrazioaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetakoren batean.

Prestakuntzarako izangaien eskabideak I. eranskinean adierazitako ereduaren arabera izanen dira, eta aldi baterako kontratazioarako izangaienak, II. eranskinekoaren arabera. Eskabide horiek eskuratu ahalgo dira Nafarroako Parlamentuaren erregistro orokorrean nahiz Nafarroako Parlamentuko webguneko (www.parlamento-navarra.es) "lanpostuetarako deialdiak" izeneko atalean. Eskabidean, izangaiek adierazi behar duten ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere erreferentzia gisa harturik eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna.

1.2 Eskabidearekin batera aurkeztuko dira alegaturiko merezimenduen zerrenda eta merezimen-

du horiek frogatzeko agiriak (jatorrizkoak edo behar bezala kautoturiko fotokopiak), 6.1 arauan ezarritakoari jarraituz.

1.3 Ezgaitasuna duten izangaiek zilegi izanen dute denbora- edo baliabide-egokitzapenak eskatzea, baldin eta beharrezkoak badira ariketaren bat egiteko. Kasu horretan, hori eskabidean adierazi beharko dute, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute zer ezgaitasun daukaten eta zein diren eskaturiko egokitzapenak. Horrekin batera, minusbaliatuak direla frogatzeko agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

2. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. Behin-behineko zerrendak.

Eskabideak aurkezteko epea iraganik, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak jarriko ditu jendaurrean, bai Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean bai www.parlamento-navarra.es webgunean.

Egun horretatik aurrera eta ondoko bost egun baliodunetan, izangaiek erreklamazioak egin ahalko dituzte edo eskabidean egindako akatsak zuzendu.

Izangai bazterturik ez badago, zuzenean onetsiko dira behin betiko zerrendak.

4. Behin betiko zerrendak.

Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta, kasua bada, horiek ebatzita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko iragarki oholean argitaratuko da.

5. Epaimahai kalifikatzailea.

5.1 Hauexek izanen dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Epaimahaiburua: José Andrés Burguete Torres jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Ordezkoa: Jesús Javier Marcotegui Ros jauna, Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

Epaimahaikidea: Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko legegari nagusia.

Ordezkoa: Luis Ordoki Urdazi jauna, Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusia.

Epaimahaikidea: Jesús Corona Ferrero jauna, Kantabriako Parlamentuko legegari nagusia.

Ordezkoa: Ángel Sanz Pérez jauna, Kantabriako Parlamentuko legegaria.

Epaimahaikidea: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak proposatuta izendatu beharrekoa.

Epaimahaiko idazkaria: Manuel Pulido Quecedo jauna, Nafarroako Parlamentuko legegaria.

Ordezkoa: Gemma Sánchez Lerma andrea, Comptos Ganberako legegaria.

5.2. Baldin eta, abstentziorako eta errefusatzeko lege ezarritako arazoak aplikatuz, epaimahaiaren osaketan aldaketarik balego, aldaketa hori argitara emanen litzateke izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera.

5.3. Epaimahaia hautapen prozesua hasi aurretik eratu beharko da.

5.4. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa bildu gabe.

5.5. Epaimahaiak gehiengo ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

6. Hautapen prozesuaren garapena eta balioespena.

6.1 Merezimenduak balioesteko fasea.

6.1.1. Alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen III. eranskinean azalduko baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko dira.

6.1.2. Merezimendu guztiak izangai bakoitzak deialdian parte hartzeko bere eskabidea aurkezten duen unean alegatu eta agiri bidez frogatu beharko dira, jatorrizko agirien edo haren kopia konpultsatuen bidez; hala izan ezean, ez aurkeztutzat joko dira.

6.1.3. Baremoaren aplikaziorako beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko dute agiri horiek. Ez dira aintzat hartuko justifikatu gabeko merezimenduak.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

6.1.4. Lehiaketaldia ez da baztergarria izanen, eta bertan, gehienez ere, 30 puntu lortu ahalko dira, III. eranskinean ezarritakoari jarraikiz, ondoko ataletan banatuta:

a) Esperientzia profesionala: 20 puntu, gehienez ere.

b) Prestakuntza, ikerketa eta argitalpenak: 10 puntu, gehienez ere.

6.1.5. Izangai bakoitzari dagozkion merezimen-duak arrazoiz baloratuko ditu epaimahaiak, baremoaren atal bakoitzaren arabera; edonola ere, ezin izanen da aintzat hartu alegatu gabeko merezimendurik, edo agiri bidez egiaztatu gabekorik, ez eta atal bakoitzari dagokion gehieneko puntuazioa gainditu.

6.2 Hautapoben fasea.

6.2.1. Merezimendu-balioespena bukatu ondoren, epaimahaiak Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko du haren emaitza, eta, gutxienez ere hiru egun baliodun lehenagotik, hautapoben eguna iragarriko du.

6.2.2. Hautapoben fasea bi ariketa baztertzaillez osaturik egonen da, eta honela gauzatuko da:

a) Lehen ariketa: Ariketa teorikoa. Ariketa hori gehienez ere hiru ordutan egin beharko da, eta bertan bi gai azaldu beharko dira idatziz. Gaiak deialdiko IV. eranskinetik zozketa bidez aterako dira.

b) Bigarren ariketa: Ariketa praktikoa. Ariketa horretan irizpen bat idatzi beharko da, Nafarroako Parlamentuaren funtzionamenduari eta eskumenei dagozkien gaiak buruzko kasu baten gainean.

Izangaiek gehienez ere hiru ordu izanen dituzte ariketa hau egiteko, eta beraiek ekartzen dituzten legezko testu iruzkinik gabeak erabili ahalko dituzte.

6.2.3. Hautapoben fasea honela kalifikatuko da:

1. Ariketa teorikoa: 35 puntu gehienez.

2. Ariketa praktikoa: 35 puntu gehienez.

Hautapobetako ariketa bakoitza baztergarria izanen da, eta bazterturik geldituko dira gutxienez puntuazio osoaren erdia (17,5 puntu) lortzen ez duten izangaia.

6.2.4. Hautapoben aldiko ariketak irakurtzeko ekitaldia publikoa izanen da.

Hautapoben faseko ariketak ondoko arauak jarraikiz eginen dira: idatziz eginen dira, eta izangaiek ariketa amaitu ondoren, orriak gutun-azal batean sartuko dituzte; interesdunak eta bi epaimahaikidek sinatuko dute hegalean eta idazkariak gordeko du gutun-azala.

Behar denean, zozketa bidez suertatzen den hurrenkera alfabetikoan, lehiatzaileak berak izenpeturiko gutun-azalak epaimahaiaren aurrean ireki eta ariketa jendaurrean irakurriko du.

Oinarri honetan ezarritakoa betetzen ez duten izangaiek beren eskubideak galduko dituzte.

Epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu emaitzak Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean.

7. Probak gainditu dituztenen zerrenda eta agiri-aurkezpena.

7.1. Merezimenduak balioetsi eta probak kalifikatu ondoren, probak gainditu dituztenen zerrendak argitaratuko ditu epaimahaiak, eta haietan, puntuaziorik handienetik txikienerako hurrenkeran adieraziko dira izangaien izenak. Zerrenda horiek Nafarroako Parlamentuaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira.

7.2. Izangaien artean gerta litezkeen puntuazio-berdinketak ebazteko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

a) Prestakuntzarako deialdia: eskaerak aurkezteko epearen azken egunean antzinatean handiena aitortuta nor duen hartuko da aintzat. Horrela ere berdinketak bere horretan irauten badu, zozketa bidez ebaztuko da.

b) Aldi baterako langileen kontratazioa: berdinketak ebazteko, irizpide hauek hartuko dira aintzat, aipatzen diren hurrenkeran: lehen ariketan lortutako puntuazioa eta bigarren ariketan lortutako puntuazioa. Horrela ere berdinketak bere horretan badirau, zozketa bidez ebaztuko da.

7.3. Prestakuntzarako zerbitzu berezien administrazio-egoeran egotearen adierazpena lortzeko edo, kasuko administrazio-kontratua tarteko, legetari lanpostuan aldi baterako jarduteko, gainditutako izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte dei egiten edo kontratazioa jakinarazten zaien egunetik aurrera hamar egun naturaleko epean:

a) Prestakuntza-zerrendan dauden funtzionarioek:

– Deialdian baldintza gisa ezarritako tituluaren kopia kautotua edo fotokopia (haren konpultsa egin ahal izateko, jatorrizkoekin batera aurkeztu beharko da), baldin eta dokumentazio hori ez bada aurkeztu merezimendu-balioespena egiteko faserako.

b) Aldi baterako kontrataziorako zerrendan gaindituak:

– NANaren fotokopia konpultsatua.

– Administrazio publiko bateko zerbitzutik bereizia ez egoteari eta eginkizun publikoak betetzeko desgaituntzarik edo etenarazpenik ez izateari buruzko adierazpena.

– Deialdian baldintza gisa ezarritako tituluaren kopia kautotua edo fotokopia (haren konpultsa egin ahal izateko, jatorrizkoekin batera aurkeztu beharko da), baldin eta dokumentazio hori ez bada aurkeztu merezimendu-balioespena egiteko faserako.

– Halaber, kasuko eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea frogatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Mahaiak zehazturiko fakultatibo edo erakundeak eginikoa.

Aurreko idatz-zatietan aipatutako agiriak aurkeztea ezinezkoa gertatzen dela behar bezala frogatzen denean, zuzenbidean onarturiko edozein frogabide erabiliz frogatu ahalko da deialdian ezarritako baldintzak betetzen direla.

7.4. Kasuko zerrendak osatzen dituzten izangaiak dei eginen zaie deialdien oinarrietan ezarritakoari jarraituz, eta betiere errespetatuko da prestakuntzan aritzekoak diren izangaiek deituak izateko duten lehentasuna aldi baterako kontrataziorako izangaiei aurretik.

8. Errekurtsoak.

8.1. Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa, Legebiltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

8.2. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko erabakitzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Eskaera, legelari gisa jarduteko Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzekoa.

_____ jaunak/andreak, zeina Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioa baita, _____ lanpostuan diharduena

AZALTZEN DUT:

Ikusirik deialdi bat onetsi dela (___ zenbakiko eta 2007ko _____aren __ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala) legelari gisa prestakuntza jasotzeko zerrenda bat hautaprobei eta merezimendubalioespenaren bitartez osatzekoa, deialdi horretan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituela.

Deialdiaren arauak jarraituz, erantsitako agiri batean zerrendatu dituela, behar bezalako hurrenkeran, alegaturiko merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

ESKATZEN DUT:

Onartua izatea deialdi horretan, kasuan kasuko hautaprobetan parte hartzeko.

Iruñean, 200 koaren(e)an.

(sinadura)

II. ERANSKINA

Eskaera, legelari gisa jarduteko aldi baterako administrazio kontrataziorako zerrenda bat osatzeko deialdian parte hartzekoa.

_____ jaunak/andreak, Espainiako nazionalitatea duenak, adinez nagusia, . _____ zenbakiko NANaren jabe, 19__ko _____aren __an _____(jaiotza-tokia)an jaiotak, eta _____(kalea, zenbakia, solairua, posta kodea, hiria) helbidea duenak (telefono finkoa: _____; sakelakoa: _____; posta elektronikoko helbidea: _____),

AZALTZEN DUT:

Ikusirik deialdi bat onetsi dela (___ zenbakiko eta 2008ko _____aren __ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala) legelari gisa jarduteko aldi baterako administrazio kontrataziorako zerrenda bat hautaprobei eta merezimendubalioespenaren bitartez osatzekoa, deialdi horretan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituela.

Deialdiaren arauak jarraituz, erantsitako agiri batean zerrendatu dituela, behar bezalako hurren-

keran, alegatu dituen merezimenduak eta aurkezturiko frogagiri egokiak.

□ Ezgaitasun bat duela, eskabidearekin batera frogatzen duena.

□ Duen ezgaitasuna dela-eta, egokitzapena eskatu nahi duela (minusbaliotasunaren nondik-norakoak eta behar diren egokitzapenak aparteko orrian azalduko dira).

Halaber, hau ere adierazten du:

Ez duela karguan aritzea galarazten dion eritasunik ez eta akats fisikorik edo psikikorik ere.

Eginkizun publikoetan jarduteko desgaitzakerik edo etenarazpenik ez duela eta administrazio publiko bateko zerbitzutik bereizia ez dela izan.

Deialdian baldintza gisa ezarritako titulazioa badaukala eta eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentzia gisa hartuta.

Iruñean, 200 koaren(e)an.

(Sinadura)

III. ERANSKINA

Merezimenduak baloratzeko baremoa

1.- Esperientzia profesionala.

a) Parlamentuetan edo administrazio publikoetan A mailako edo taldeko lanpostuetan emandako zerbitzuengatik, lanpostu horietarako zuzenbideko lizentziatu titulua eskatu bada: bi puntu urte bakoitzeko. Hamalau puntu lortu ahalko dira gehienez.

b) Sektore pribatuan zuzenbideko lizentziatu gisa emandako zerbitzuengatik: puntu bat urte bakoitzeko. Hiru puntu lortu ahalko dira gehienez.

c) Epaimahaiak hiru puntu eman ahalko ditu gehienez ere sektore publikoan edo pribatuan eginitako jarduera profesionalengatik, baldin eta bete beharreko lanpostuarekin harreman zuzena badute.

Baremoaren puntuak aplikatzeko irizpideak:

1. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari proportzionalki dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2. Lehen atal honetako merezimenduengatik 20 puntu lortu ahalko dira gehienez ere.

3. Lanaldi partzialean emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4. Ez dira baloratuko aldi berean emandako zerbitzuak, lanaldi partzialean emandakoak ez badira.

2.- Prestakuntza, ikerketa eta argitalpenak.

Hamar puntu lortu ahalko dira gehienez.

a) Zuzenbideko doktore gradua izateagatik: 3 puntu.

b) Ikertzaile-nahikotasuna edota lizentziaturako proba izateagatik: puntu 1.

c) Epaimahaiak bi puntu eman ahalko ditu gehienez ere beste unibertsitate-titulazio batzuk izateagatik, baldin eta bete beharreko lanpostuarekin harreman zuzena badute.

d) Bi puntu eman ahalko dira gehienez ere lanpostuaren eginkizunekin harreman zuzena duten ikastaroetara, kongresuetara eta jardunaldietara joateagatik.

e) Epaimahaiak bi puntu eman ahalko ditu gehienez ere bete beharreko lanpostuaren eginkizunekin harreman zuzena duten argitalpenengatik.

IV. ERANSKINA

1.- Konstituzioa arau juridiko gisa. Konstituzioaren edukia. Konstituzio-arauak interpretatzeko irizpideak. Legeak Konstituzioaren arabera interpretatzea.

2.- Zuzenbide estatu sozial eta demokratikoaren kontzeptua.

3.- Aniztasuna eta alderdi politikoak. Alderdi politikoen estatus juridikoa demokrazia garaikideetan.

4.- Espainiako hauteskunde-sistema. Diputatu- eta Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak. Autonomia erkidegoetako legebiltzarretarako hauteskundeak. Espainiako hauteskunde-sistema. Hautespen aktiboaren eta pasiboaren eskubidea. Hauteskunde administrazioa.

5.- Estatuaren eta autonomia erkidegoen lege-gintza ahalmena. Oinarrizko legeak, esparru-legeak, transferentzia- edo eskuordetze-legeak eta harmonizazio-legeak.

6.- Oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen teoria. Parte-hartze politikorako eta kargu publikoak betetzeko eskubidea. Babes judizialerako eskubidea. Berme prozesalak.

7.- Konstituzio Auzitegia. Osaera eta eginkizunak. Jurisdikzioa eta eskumena. Arauen kontrol abstraktua: konstituziokontrakotasun errekurtsua. Konstituziokontrakotasun-auzia. Babes errekurtsua.

8.- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: prestakuntza prozesua. Izaera eta esanahia. Nafarroako Foru

Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa erreformatzeko prozedura.

9.- Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Aurrekariak. Osaera eta egitura. Foru parlamentariak: Eskubideak eta betebeharrak; parlamentari izaeraren eskuratze eta galtzea. Nafarroako Parlamentuko hauteskunde-sistema. Parlamentuaren eraketa. Legegintzaldia eta bilkuraldiak. Legebiltzara desegitea.

10.- Nafarroako Gobernua edo Foru Diputazioa. Aurrekariak. Eginkizunak eta eskumenak. Gobernuo kideak.

11.- Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioko lehendakaria. Haren hautapena. Nafarroako Gobernuo lehendakariaren erantzukizuna Nafarroako Parlamentuaren aurrean. Zentsura mozioa. Konfiantza eskaera.

12.- Nafarroako Foru Komunitatea: eskumenen banaketa-sistema.

13.- Foru Komunitateko administrazioa. Antolamendua. Bere xedapenen eta ekintzen araubidea. Errekurtso-sistema.

14.- Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua. Prestaketa, erreforma, egitura eta interpretazioa. Legebiltzarren autonomia finantzarioa bere aurrekontua onetsi eta betetzerakoan.

15.- Legebiltzarretako lehendakaritza eta gobernu organoak. Mahaia eta bere esanahi tekniko-parlamentarioa. Eledunen Batzarra. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

16.- Parlamentuko lan-organoak. Batzorde Iraunkorra. Nafarroako Parlamentuaren funtzionamendua. Bilkurak eta bilkura motak Nafarroako Parlamentuan. Egun baldiodunak. Deialdia. Gai zerrenda: prestaketa eta aldaketak. Quoruma.

17.- Parlamentu-taldeak eta horien konstituzio-esanahia. Taldeen antolamendua. Talde-sistemaren eragina legebiltzarren antolamenduan eta funtzionamenduan. Gai horiei buruzko Nafarroako zuzenbidea.

18.- Legegintza. Legegintzako ekimena eta motak. Zuzenketak: kontzeptua, izaera eta beteki-

zunak. Legegintzako prozedura orokorrak eta legegintzako prozedura bereziak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

19.- Parlamentuaren eginkizun ekonomikoa. Aurrekontua onestea. Parlamentuko izapidetzearen berezitasunak. Aurrekontu-betetzearen kontrol parlamentarioa. Nafarroako Kontu Orokorraren izapidetzea. Parlamentuen mugak kredituen arloan: gastuak nahiz diru-sarreraren gutxitzea dakartzaten zenbait zuzenketak eta lege proposamenak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

20.- Gobernua kontrolatzeko berariazko prozedurak. Galderak eta jabeldurak. Ikerketa batzordeak. Espainiako eta Nafarroako zuzenbidea arlo horietan.

21.- Bultzatze edo zuzendaritza politikoa. Politika orokorrari buruzko eztabaidak. Mozioak.

22.- Eztabaida parlamentarioa. Sistemak. Hitza hartzea. Aipamenak. Gaiari lotzeko edo ordena gordetzeko eskatzeko deiak. Parlamentuko gizalagea. Eztabaida gure zuzenbide parlamentarioan. Botoa emateko sistemak eta hurrenkera. Gehien-goak eta berdinketak ebaztea.

23.- Parlamentuaren zerbitzuko langileak: araubide juridikoa; sartzeta eta kargu-uztea; egoerak; eskubideak, betebeharrak eta bateraezintasunak; diziplina-araubidea.

24.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea I: Aplikazio eremua eta arau orokorrak. Kontratistak. Administrazio publikoen kontratu guztietarako xedapenak. Esleipenaren aurreko jarduketak.

25.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea II: Esleitzeko prozedurak eta irizpideak. Kontratazioaren kudeaketa hobetzeko sistemak. Publizitate arauak eta epeak. Esleipena, burutzea eta formalizazioa.

26.- Kontratu publikoei buruzko Foru Legea III: Kontratuak gauzatzea. Ordainketa eta prezioen berrikuspena. Kontratuen amaiera eta baliogabetasuna. Erreklamazioak eta beste kontrol-neurri batzuk.

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2009rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 107. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2009. urterako haxe izanen dela ezartzea:

Ohiko bilkuraldiak:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

– Larunbatak: itxita.

– Abenduaren 24an itxita egonen da, eta egun baliogabea izanen da ondorio guztietarako.

Bilkuraldien arteko aldia:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Larunbatak: itxita.

Urtarrilaren 5ean eta uztailaren 6, 7, 8, 9 eta 10ean itxita egonen da, eta horiek egun baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

2. Igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak ere baliogabeak izanen dira.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2009rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari nagusiaren txostena ikusirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2009ko egutegia onestea. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

– Uztailaren 7a, 8a, 9a eta 10a: San Fermintako jaiegunak.

– Urtarrilaren 5a, uztailaren 6a eta abenduaren 24a: jaiegunak.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administratzaioarako oro har ezarritakoak.

2. Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilean eta abenduaren 31n lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta 08:30ak bitarteko malgutasuna

egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30ak eta 15:30ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30ak eta 08:30ak bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00ak eta 15:00ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta 30 minutu benetako bete beharko dira lanean.

3. Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan argitaratzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Comptos Ganberako lehendakariaren Ebazpena, 2008ko abenduaren 18koa, erakunde horretan dauden datu pertsonalen fitxategietako batzuk aldatu eta fitxategi berri batzuk sortzen dituen.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariaren 2006ko martxoaren 22ko Ebazpenaren bidez sortu ziren, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz, erakunde horretako "Erregistro Orokorra", "Langileen kudeaketa" eta "Kontabilitatea eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa" izeneko fitxategi automatizatuak. Fitxategi horiek argitaratu ziren 2006ko apirilaren 19ko 47. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2006ko apirilaren 21eko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean. Halaber, behar bezala jakinarazi zitzaion Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.

Iragan apirilaren 19an indarrean sartu zen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua, zeinaren helburua baita zenbait neurri ezartzea, pertsona fisikoen askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak eta bereziki haien ohorea eta intimitate pertsonala eta familiarra, datu pertsonalen tratamenduaren arloan, bermatu eta babesteko xedearekin.

Ukitutako oinarrizko eskubideak behar bezala bermatzeko eta horrekin zerikusia duten jarduerak egokitu eta duela gutxi onetsitako araudia betetzeko, bidezkotzat jotzen da "Langileen kudeaketa" eta "Kontabilitatea eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa" izeneko fitxategiak aldatzea eta "Sarrerren kontrolaren fitxategia" eta "Fiskalizazio fitxategia" sortzea.

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduaren 52. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen da beharrezkoa dela datu pertsonalen fitxategien sorrera edo aldaketa egitea kasuan kasuko aldizkari ofizialean argitaratuko den xedapen edo erabakiaren bidez. 54. artikuluan zehazten da titulartasun publikoko fitxategiak sortzeko edo aldatzeko xedapen edo erabakiak izan beharreko gutxienezko edukia. Halaber, erregelamendu horren 55. artikulua zehazten du titulartasun publikokoak diren datu pertsonalen fitxategiak jakinarazteko eta inskribatzeko prozedura.

Horrenbestez, Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak emaniko ahalmenak baliatuz, lehendakari honek

EBATZI DU:

Lehena.- "Langileen kudeaketa" eta "Kontabilitatea eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa" izeneko fitxategiak aldatzea, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onetsi zuen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

"Langileen kudeaketa" fitxategian eginiko aldaketa izan da bertan jasotako datuen ezaugarrietan sartuko direla administrazioko arau-hausteak egiteari eta lizentzia eta baimenei buruzko datuak.

"Kontabilitatea eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa" fitxategian eginiko aldaketa da bere xedeen eta aurreikusitako erabileren deskribapena gaur egungo egoerara egokituko direla, eta horiek Nafarroako Comptos Ganberaren kudeaketa ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta kontabilitateari buruzkoa hartuko dituztela. Halaber, fitxategi horretan sartutako datuen ezaugarri gehituko zaizkie, lanbideari buruzko datuetan, esperientzia profesionalari buruzkoak. Bestalde, informazioaren gizarteko aurrerapenak sartzeak eskatzen du datuak biltzeko prozeduren deskribapenari gehitzea datuen transmisio elektronikoa edo interneten bidezkoa.

Bigarrena.- "Sarrerren kontrolaren fitxategia" eta "Fiskalizazio fitxategia" izeneko fitxategiak aldatzea, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen erregelamendua onetsi zuen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

"Sarrerren kontrolaren fitxategia" dokumentu-base bat da, sarrerren kontrolari eta segurtasunari buruzko fitxa normalizatuak jasotzen dituen. Nafarroako Comptos Ganberaren egoitzan sartzen diren pertsona fisikoen izenari buruzko datuak jasotzen ditu. Datuak interesdunak berak emandakoak dira.

Fitxategi horren xedea da segurtasuna eta erakundearen egoitzako sarrerren kontrola. Fitxategi horretan jasotzen diren datuen ezaugarriak direla eta, oinarrizko segurtasun-maila izanen du. Nafarroako Comptos Ganberako lehendakaria izanen da fitxategiaren ardura izanen duen organoa, eta haren aurrean baliatu ahalko dira sarbidea izateko, zuzenketa egiteko eta bertan behera uzteko eskubideak.

Ez da aurreikusi fitxategi horretan jasotako datuen lagapenik edo transferentziarik.

“Fiskalizazio fitxategiak” jasotzen ditu Comptos Ganberak bere jardunean eginiko fiskalizazio edo aholkularitza-lanetan adierazten diren datuak. Halaber, kontabilitatearen gaineko epaiketaren instrukzioari buruzko espedienteak jasotzen ditu. Datu pertsonalak ager daitezke Comptos Ganberak eginiko lanaren ondorioz, fiskalizatutako entitateak dokumentazioa aurkeztu duelako, paperezko formularioak egin dituelako, elkarrizketen bidez, edota informazioa eman duelako bestelako euskarrietan eta transmisio telematikoaren bidez.

Lortu daitezkeen datu pertsonalak izanen dira pertsona edo talde haienak, zeinak arrazoi bategatik edo bestereengatik, fiskalizazioaren edo aholkularitza-lanaren xedearen arabera, fiskalizaturiko edo Comptos Ganberaren lanari loturiko entitateekin harremana izan duten edo duten.

Fiskalizazio edo aholkularitza-lan bakoitzari dagokion fitxategiak, lanaren xedearen arabera, honako edukiak izan ahal ditu: bereziki babesturiko datuak, arau-hauste penalei edo administrazio-koei buruzko datuak, izenari buruzkoak, datu akademikoak eta lanbideari buruzkoak, enpleguari buruzko xehetasunak, merkataritza-informazioari buruzko datuak eta datu ekonomiko-finantzarioak eta transakzioei buruzkoak.

Fitxategiaren segurtasun-maila, jaso ahal dituen datuen izaera dela-eta, altua da.

Fiskalizazioari buruzko fitxategi juridikoa zenbait fitxategi logikotan egituratzen da, bat eginiko fiskalizazio edo aholkularitza-lan bakoitzagatik. Fitxategi logiko bakoitzari dagokion segurtasun neurrien maila aplikatuko zaio, jasotzen dituen datuen izaeraren arabera, eta Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduaren 81. artikuluan zehaztutako mailen definizioari jarraikiz.

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakaria izanen da fitxategiaren ardura izanen duen organoa, eta haren aurrean baliatu ahalko dira sarbidea izateko, zuzenketa egiteko eta bertan behera uzteko eskubideak.

Ez da aurreikusi fitxategi horretan jasotako datuen lagapenik edo transferentziarik.

Hirugarrena.- Datuak Babesteko Espainiako Agentziari jakinaraztea, inskriba daitezen, zeintzuk diren ebazpen honen bidez aldatutako eta sortutako fitxategiak, Datu pertsonalak babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduan ezarritako moduari eta prozedurari jarraikiz.

Laugarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialera eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialera, argitaratzeko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 18an

Nafarroako Comptos Ganberako lehendakaria:
Luis Muñoz Garde

Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2009. urterako ordutegi ofiziala.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

“Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honetara zuzendutako dokumentazio ofiziala hartzearen ondorioetarako, lehendakaritza honek honakoa ERABAKI DU:

Lehena. Ezartzea Nafarroako Comptos Ganberaren Erregistro Orokorraren 2009 urterako ordutegi ofiziala 8:30ean hasi eta 14:30era bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea Comptos Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen

ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilarien abenduaren 12ko 521/2008 Foru Aginduan ezarritako larunbat, igande eta jai egunetan, bai eta uztailaren 6, 11, 12, 13 eta 14an, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki hau igortzea Comptos Ganberako idazkari nagusiari eta administratzaileari eta erakunde horretako iragarki oholean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 26an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde